

Funtsezko jarduerak

Gure enpresa arrakasta izan ditzan, zenbait funtsezko jarduerak kontutan hartu behar dira: ekoizpena, arazoak konpontzeko irtenbideak eta plataforma edo sareko jarduerak.

- Gure kasuan, jarduerarik garrantzitsuena **ekoizpena** da. Izan ere, gure enpresak zigarro-puntekin sortutako lehengai eraldatuko dugu bestelako soinua isolatzeko materiala sortuz.



- Gainera, zigarro-puntak Recytrans- ek jasoko dituzenez, harremanetan egon behar gara eta ehuneko ehunetan koordinatuta. Horretarako Erandioko enprekin eta udaletxearekin akordioak sinatuko dira beraien sarreretan edukiontzia jartzeko bertan zigarro-puntak botatzeko. Astero edukiontzien edukia Recytrans enpresak jasoko du, betiere behar den arabera.

- Denda fisiko propio bat ez dugunez, on line eta interneteko kudeaketa oso garrantzitsua izango da, gure salmentaren oinarria izango delako. Bestalde, gure lehengai nagusia zigarro-puntak direnez, bilketak hondartzan, kaleetan edota mendietan egingo dira, eta bestelako akzio sozialak adieraziko ditugu gure web orrian.



- Azkenez, bezeroarekiko harremanetan azaldu genuenez, gure harremanak erdi automatizatuak badira ere, edozein zalantza edo edozein arazo egotekotan bezeroek beraien "kexak" sistema honen bitartez bideratu ditzakete.